

Irailaren 22an  
**URTEAN ZEHARREKO 25. IGANDEA**

**Agurra**

Jesus Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Kristoren piztuera oroitzen dugu Igandean; Eukaristian parte hartuz Haren salbamera gugana iristen da. Horregatik, esker onez eta bihotz-berritzeko gogoz garturatzen gara, Kristo izan dadin beti gure bizitzaren erdigune eta ezerk ez gaitzan Berarengandik aldentu.

**Damu-otoitza**

Kristorengandik aldentzen gaituen bekatuari bizkar eman ez eta Jaunaren errukitan berritzeko asmoz, eska dezagun barkamena.

—Jesus Jauna, baztertua izan zinen arren inor baztertzen ez duzuna.  
Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatarien adiskide izan arren bekaturik ez duzuna.  
Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia kendu zizuten arren beti bizia ematen ari zarena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

**Otoitza**

**Jainko Jauna, lege bakar hau eman diguzu:**

**Zu eta lagun hurkoa maitatzea;**

**egizu, zure aginduak betez, betiko bizitzara iritsi gaitzela.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### Hitzaren liturgiari oharpena


Jainko sortzaileak, guztioi berdin eman zigunak, ezin du onartu inolaz ere inongo zapalketarik edota tranparik. Deiar bat dugu gaur ere Jainkoaren Hitz hau, salaketazko deiar bat: gaur ere, gure gizartean, badaude zapaltzaileak eta badaude zapalduak.

### Lehenengo irakurgaia (Am 8, 4-7)

Amos Profetaren liburutik

Entzun hau zuek, behartsuak zapaltzen eta herriko jende xeheak hondatzen dituzuenok, esanez: «Noiz igaroko ote da ilberria, garia saltzeko, eta larunbata, mandioak irekitzeko? Neurriak txikitu egiten dituzue, balioak handitu, eta okerreko pisuak erabiltzen; pobreak diruz erosten dituzue eta behartsuak oinetako pare batean, gari hondakinak ere salduz». Jakoben aintzogatik, zin egiten du Jaunak, ez duela sekulan ahaztuko, zuek egindakorik.

### Erantzun-salmoa (Sal 112, 1-2. 4-6. 7-8)





Jaunaren morroiak, goretsazue,  
 Jaunaren izena goretsazue.  
 Jaunaren izena bedeinkatua izan bedi,  
 orain eta gizaldiz gizaldi. R/.

Jauna garai dago herri guztien aldean,  
 Haren ospea ortziaren gainean,  
 Nor da Jauna, gure Jainkoa, adinakorik? '  
 goian eseri dago;  
 eta begia jaisten du zeru eta lurerraino. R/.

Jasotzen du dohakabea hautsetatik,  
 ateratzen behartsua simaurretatik;  
 eseraraz dezan nagusiekin,  
 bere herriaren nagusiekin. R/.

### **Bigarren irakurgaia** (1 Tm 2, 1-8)

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Hau eskatzen dizut lehenengo: otoitz, erregu eta esker emateak egiteko gizaki guztien alde, eta erregeen eta agintzen dauden guztien alde, zintzo eta egoki, izaera bare eta baketsuan bizi gaitezen. Ona eta atsegina da hau, Jaungoiko gure Salbatzailearen begietan, gizaki guztiak salbatzea eta guztiak egiaren ezaguerara iristea nahi du eta.

Izan ere, bakarra da Jaungoikoa, eta bakarra Jaungoikoaren eta gizakien bitartekoa: Kristo Jesus gizona, bere burua guztien ordain eman zuena. Bere garaian emandako aitormena da hau; eta

horretarako ipinia nago ni albistari eta apostolu —egia diot, ez diot gezurrik—, jentilen irakasle sinesmenean eta egian.

Hau da, beraz, gizonezkoei eskatzen diedana: otoitzak gizonezkoek egin ditzatela toki guztietan, esku garbiak jasoz, haserrerik eta eztabaidarik gabe.

### Aleluia (2 Kor 8, 9b)



Jesu Kristo aberats izanik, behartsu egin zen,  
Haren behartsu izatetik zuek aberats zaitetzen. R/.

### Ebanjelioa (Lk 16, 1-13)

#### Homiliarako argibideak

*Ezin zarete izan bi nagusiren morroi*

Kontabilitate bikoitza ez da garai honetan asmatutakoa. Jesusen garaian ere bazegoen. Eskrupulurik gabeko administratzaileek erabiltzen zuten, euren esku uzten zituzten finkei etekina ateratzeko. Orduan ere arriskutsuak ziren eragiketak, jakin jakiten baziren. Aberasteko nahiak ez du mugarik, ordea. Amos profetak ere salatu zuen bere garaian merkatariak batez ere atsekabetuta zeudela ezin zelako jaietan eta larunbatean saldu eta jendea (Am 8, 4-7). Gaur egun, azalera handiko saltokiek ez dute halako mugarik jada. Ahalik

eta irabazi handienaren bila, nekez kezkatzen dira euren langileen familia-bizitzaz.

Bai Lukasek eta bai Jesusek ongi baino hobeto dakite zein den munduko egoera, etxezain ustel batzuek enpresak porrotera daramatzatenekoa. Garai hartako gizarte-bizitza islatzen duen parabola horretan, kontabilitate bikoitza daraman bidegabeko etxezain baten **maltzurkeria** erakusten digu Jesusek (*Lk 16, 1-13*). Etxezainaren nagusia ere liluratuta geratuko da, eta goratu egingo du haren zuhurtasuna, eta ez haren bidegabekeria. Zer pentsatzen zuten benetan Jesusek eta Lukasek kasu horri buruz? Distantzia kritikoa mantenduko dute, noski, ontasuna eta gaiztakeria nahasten dituen etxezainaren pertsonaiari dagokionez.

Lukas oso kezkatuta dago aberastasunaren kontuarekin; izan ere, lehenik eta behin oztopo handia da kristau egiteko eta, bigarrenik, kristau modura bizitzeko. Jesusek eta Lukasek ez dute dirua gaitzetsiko, baina komunitateko kide askoren pobrezia aurrean begiak ez ixteko eskatuko die kristauei. Diruaren arriskua da **esklabo** egiten gaituen jainko bihurtzea eta anaia-arreben bitartez benetako Jainkoari zerbitzatzen ez uztea.

Bada, ordea, diruaren zerbitzarietan arreta ematen digun gauza bat: euren helburuak lortzeko zuhurtasuna eta lana. Fededunak fededun ez direnek diruaren jainkoaren zerbitzura besteko energia erakutsi beharko luke **Erregetzaren zerbitzura**. Ematen du Lukasek euren energia guztiak Erregetzaren zerbitzurako erabiltzeko gai ez izatea aurpegiratzen diela bere irakurleei. Pertsona onak dira, noski, baina ez dira behar beste arduratsu eta handinahi Elizaren komunitateko bizitzarekin.

Bidegabea den dirua berrerosteko modu bakarra Erregetzaren zerbitzura jartzea da. Zentzu batean, diru guztia da bidegabea.

**Pobreak daudelako daude aberatsak.** Kristau komunitateetako aberatsentzat ere balio du horrek. Ez gara ondasunen jabe, Jainkoak guretzat sortu dituen ondasunen administratzaile baino ez. Dirua berrerosteko modu bakarra da eliza-komunitatearen zerbitzura administratzea da. Halaxe egiten zuten euren jabetzak saldu eta dirua apostoluen esku jartzen zuten aberats batzuek, horiek behartsuei lagun ziezaieten.

Gutxi dira Jainkoaren seme-alaba izateko bokazioa bete dezaten denek beharrezkoa dena eduki behar izatearen ikuspegi ebanjelikoan kokatzen diren aberatsak, noski. Oinordetzan jasotako edo kontzientzia onez eskuratutako ondasunen jabetzat dute denek euren burua. Horrek blokeatu egiten ditu mundua eraldatzeko balizko ekimenak, **ez baitago baliabiderik**. Zalantzarik gabe, limosna ez da nahikoa, ezta justizia soziala deiturikoa ere. **Elkartasunez partekatuta** bakarrik egongo dira ondasunak benetan denen zerbitzura.

Eukaristiako gure parte-hartzeak besteekiko benetako elkartasuna eragiten du. Bat-egite hori ezin da espiritualak bakarrik izan, ondasun materialak ere behartsuekin banatzera eraman behar gaitu.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: egin dezagun otoitz gizakien alde eta beraien beharren alde, denek izan dezaten gure maitasunaren laguntza:

- Aita Santuak, gotzainek eta apaizek, zerbitzu jarreraz eta apaltasunez zaindu dezaten beren ardurapeko artaldea.
- Herrietako gobernarien alde: guztien ona bila dezaten, ondasunak banatzen asma dezaten eta denontzat zuzentasuna, ongizatea, bakea eta askatasuna bidera ditzaten.

—Gosea edo bestelako beharrak dituztenen alde, gaixorik eta ezinduta bizi direnen alde, etxetik urrun edota bakardadean daudenen alde.

—Hemen gaudenok, Espiritu Santuaz beterik eta fedean sendotuta on egiten saia gaitezen beti munduaren onerako.

Jainko Jauna, Zu gure Jaun bakar bezala zerbitzatzera deitzen gaituzuna, izan erruki gure giza-ahultasunari eta entzun gure otoitzak; aska gaitzazu ondasunak eduki nahi izatetik eta egizu, gure esku garbiak zerurantz jasoz Zuri atsegin zaizun gorespena eman diezazugula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Indar itzazu, Jauna, zure graziaz  
sakramentu hauek ospatu dituztenak,  
misterio hauetan eta bizitza guztian  
zure salbamenaren fruituak jaso ditzaten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**